

## Haurreskoletako lan esperientziaren puntuaketa eta zerrenden irekiera

2019ko otsailaren 6an Lakuan burututako Hezkuntza Publikako bileran Haurreskolak Partzuergoko hezitzaileoi eta irakasleoi dagozkigun gai hauek zehaztu zituzten:

**1. Hezkuntza Ordezkaritzako zerrenden irekiera:** H.H, L.H., Euskera eta Hizkuntza indargarria (HIPI), otsailaren 18tik 22ra (biak barne).

**2. Meritajea:** ordezkoen aginduan aldaketa hauek onartu dituzte:

Haurreskoletako **hezitzaileen** lan esperientzia ordezkoen baremoan zenbatuko da: Lehen Hezkuntzako Kidegoan beharrezko titulazioa izanez gero (maisumaistren zerrendak). **Zerrenden inguruko informazio gehiago** ondorengo estekan duzue:

[http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/langile\\_d\\_cand\\_sust\\_normativa/eu\\_def/adjuntos/III\\_Eranskina\\_04\\_2017\\_e.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/langile_d_cand_sust_normativa/eu_def/adjuntos/III_Eranskina_04_2017_e.pdf)

### Zenbatuko den esperientzia:

- Haurreskolak Partzuergoan eta Udal Haurreskoletan lortutako lan esperientzia: 0´33 puntu lan egindako 2 hilabete bakoitzeko.
- Haurtzaindegi pribatuetan lortutako lan esperientzia: 0´11 puntu lan egindako 2 hilabete bakoitzeko.

**3. Oposaketak:** Hezkuntzako oposaketetan ez da Haurreskolak Partzuergoko lan esperientzia puntuatuko (EPE deialdia 277/2007 Errege dekretuan oinarritzen baita).

Oposaketa deialdia hilaren 27 edo 28an argitaratuko dute. Boletinean agertzen den unetik aurrera 20 egun ditugu izena eman ahal izateko. **Informazio gehiago** nahi izanez gero, esteka honetan aurki dezakezue:

<https://steilas.eus/2019/02/07/zibersteilas-12-epe-2019-deialdi-data-ordezko gaien-araudia-eta-aparteko-zerrenden-irekialdiak-zzee-deialdi-hezkuntza-premia-berezie/>

**Haurreskolak Partzuergoko langile guztien alde lanean jarraitzen dugu, tinko!**